


Astekaria

# BARREN

elgoi

## Gorputz perfektoaren bila



**PISUA KONTROLATZEA** ez da erraza, **MANTENTZEA** are gutxiago.

**ERANTZUNA "Herbalife" NUTRIZIO PROGRAMA da.**

**Deitu 74 22 23**

## 3 LAU HANKATAN

"Euskaldun askok eta askok laguntza handia eskaini diote Yugoslabia osatu zuten eta orain banaturik bizi diren herrialdeei" **Joxin Arregi.**

## 6 ERREPORTAIA: ESTETIKAREN BOOMA

Argi dago gure itxura fisikoak gainontzekoek gutaz duten irudia baldintzatzen duela.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: DIETEN ALDEKOA ALA KONTRAKOA ZARA?

**Celia Pelaz:** "Ez pentsa gorputz perfektu horiek ametsetakoak direla, sakrifizio piskatekin lor dezakegu."

**Amelia Almeida:** "Dieta efektiboa ez dela ikustean, askotan obsesio bat bihurtzen da eta azkenean jateari lagatzen diozu."

## 12 BERBETAN:

"PENA HANDIZ UTZIKO DUT ELGOIBAR" **Pedro Albizuri.**

## 14 KIROLA

GAIA: JOSEBA ETXEBERRIA ESPAINIAKO FUTBOL SELEKZIOAN

ELKARRIZKETA: **Moises Andonegi**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

ZUHAITZ ASTIALDIKO TALDEA

## 17 KULTURA

HERRIKO ETA AUZOETAKO JAIK GOGORATUZ

TXANDAK

### FARMAZIAK:

17, larunbata: **BIDASOLO**

18, igandea: **BIDASOLO**

19, astelehena: **ORMAZABAL**

20, asteartea: **ORMAZABAL**

21, asteazkena: **ORMAZABAL**

22, osteguna: **ORMAZABAL**

23, ostirala: **ORMAZABAL**

### OKINDEGIAK:

18, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak .....740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria.....743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa) .....743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar) .....112131

Taxi Geltokia .....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala .....756100

Ongizate zerbitzua .....743736

Udaletxea .....741050

Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142

IMI .....741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea .....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....740296

Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua .....74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



©KOKOE 1993

**Argitaratzailea:** Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte  
☎ 74 16 26

**Laguntzailea:** Elgoibarko Udala

**Zuzendaritza:** Itziar Agirregomezkorta, Alberto Agirreazaldegia

**Hizkuntza Arduraduna:** Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua:** Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria:** Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea:**

Maite Rementeria

**Publizitatea:** Amaia Leiaristi

**Administrazioa:** Josune Fernandez, M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak:** Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

**Banaketa arduradunak:**

Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia

**Helbidea:**

Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Inprimategia:** Gertu koop. E. (Zubillaga Oñati)

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak diruz  
lagundutako aldizkaria*

## LAU HANKATAN



# Zergatik?

**E**uskaldun askok eta askok laguntza handia eskaini diote Yugoslavia osatu zuten eta

orain banaturik bizi diren herrialdeei.

Arazo guztietan bezala, zergaitik galderrari erantzun bat bilatzen saiatu behar genuke, gure laguntza hori sentimendu hutsa izan ez dedin. Arazo honetaz azalduko diren bi edo hiru artikuluek hortan saiatu nahi dute.

Azken urte hauetan Yugoslabiako estatu federaleko herriek izan dituzten enfrontamentuak, izkutatutik mantentzen zen historia baten adierazpenak dira. Honen ondorio nagusia, estatu horren desagerpena eta osatzen zutenen arteko lau errepublikan independentzia izan da: Eslovenia, Kroazia, Bosnia-Herzegobina eta Mazedonia. Beste bi errepublikek, Serbia eta Monte Negrok, federazio yugoslabiarrak antzeko bat mantentzen dute. Gertakizun hauen azpian dauden arrazoiaren artean batzuk adieraztea beharrezkoa da:

a) Ideologia desberdinen eza (Ekialdeko diktadura burokratiko bat bizi zuten) deszentralizazio baten bidez orekatutik aurkitu zen.

Urte askotan, errepublika arteko borroka agertu ziren, baina ez ziren enfrontamendu ideologikoak izan.

Estatu federala krisi sakon batean erori zenean, tentsioak gogortu egin ziren. Ondorioz erregimen zaharra desagertu egin zen. Ideologia desberdinen falta zegoenez, ez zen eskubi eta ezke-

rraldekoen enfrontamendu bat etorri, nazio desberdinen arteko enfrontamendua baizik.

b) Azken 20 urtetan krisi ekonomiko galanta izan dute. Yugoslabian "Autogestio" sistema ekonomikoa kolokan jarri zen eta kinka larrian sartu zen estatu osoa. Hori gainditzeko herrialde komunista batek erabiltzen dituen tresna ekonomikoak bultzatu zituzten, gehienbat burokrasia indartuz. Horrela sortu behar ziren gogo berriak eta produkzio ugari-tzeak erabat lurjota gelditu ziren.

Gainera, mendebaldeko krisia oso errez erakarri zuten eta lurralde barruan iparraldekoek (Eslovenia eta Kroazia) aurrerapen handia izan zuten, hegoaldekoak (Monte Negro, Kosobo eta Mazedonia) pobretasun handi batetan gelditu ziren, erdialdekoak (Serbia, Bosnia-Herzegobina) erdibidean gelditu zirelarik.

d) Yugoslabiako historian zehar, herri asko nahastu egin dira, Errepublika bakoitzean nahasketa handia eman da.

Oraingo arazoa ulertzeko nahasketa hau kontuan hartu behar da. Serbiarrak beste herrialde guztietan zabaltzen joan dira. Gainera ez dugu ahaztu behar, Bosniako lurraldean kroatar kopuru handi bat bizi dela.

e) Estatu federaleko indar armatuak bi ezaugarri zituen: goi-mailan Serbiarrak agertzen dira eta errepublika bakoitzean bere defentsarako estruktura oso bat osatu zuten. Gertaera hau indar armatuetan eman zen deszentralizazioaren ondorio bat da eta gero Yugoslabian sortuko zen krisialdia ulertzeko datu garrantzitsu bat da.

## INLOZU, c.B.

Leguntzeak - Nikeldura eta margotze disdiratsuak  
- Margo ilunetan adituak - Labeen sikaturiko pinturak  
(simurgarriak, etab...) urdin ilundurak - Pintura ixurketak  
(ugar kentzea, garbiketak eta piezen margoketa)

**Pedro Mugarza, 14-16. Tel-Fax: 74 16 31**

## Fotero

**OKINDEGIÀ  
OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**Aldizkaria  
debaldekoa da**

Gezurra dirudi baina... Badira hiru aste ostiralean etxeko atarian sartu eta gainontzeko buzoietan aldizkaria ikusi eta nerean faltan topatu dudala. Hasera batean banatzaileari bota nion errua, izan ere, litekeena da hainbeste errebista artean bat edo beste galtzea, halere, beti nerean izatea ere... Hirugarren astean, hara non, aurkitu nion erantzuna faltatze horri larunbat goizean etxeko atea ireki eta ate ondoan hartu nuenean. BARREN beraz, norbait "lapurtu" egiten dit

eta irakurri ondoren, kontzientzi arazoak nonbait, itzuli egiten dit.

Bada ordua lagunok, jakin dezazuen gure aldizkaria DEBALDEKOA dela, eta, donork eskura dezakeela eta, mesedez, zuen irakurtzeko irrika tamaina horretakoa bada, pentsa, besteona ere hainbestekoa dela.

M.I.

**kanpoan bizi  
geranok eta  
BARREN**

"Aspaldi nengoan ni Hitz batzuk idaztearekin zer poza hartzen dedan elgoiBARREN hartzea-

rekin Elgoibar zer? Elgoibarren zer?"

Elgoibarren dana, jaio, hezi, hasi, bizi urte askotan, eta hil? Hor nahi nuke hil, baina hori Jaiuaren eskuetan dago. Kanpoan bizi geranok (zer gauza eh?) egunez bagabiltza hona eta hara, baina gauean, gaueko ametsak beti, beti Elgoibarren; Elgoibarko plazan, kaleetan, bizi nintzaneke etxean etb.

elgoiBARREN astekari hau ez dut esaten ez duzuela pozik hartuko, ez horixe! Baina kanpoan gaudenok, guk behintzat, a zer poza hartzen dugun! Ilusioz beterik egoten

**E**SKUTITZAK

naiz. elgoiBARREN hartzerakoan ez dut ezer irakurri gabe lagatzen.

Eskerrak ba, hor lanean zaudeten guztioi eta jarraitu aurrera. Batzuetan zaila egingo zaizue asteroko lan hauek prestatzea, baina jende jatorra zarete denok eta, aurrera! Lehen euskaraz irakurtzen etzuten batzuk, ziur nago elgoiBARREN irakurriko dutela. Eskertzen dizuet ematen duzuen pozagatik eta gure herriaren alde egiten duzuen guztiagatik.

Besarkada bat denontzat

**Miren Vallejo**

**PESA GRUPO**

**TOUR 93 PARIS**

**IRTEERA:** Uztailak 23

**BUELTA:** Uztailak 26

**IRTEERA LEKUAK:**

Gasteiz	20,00
Arrasate	20,30
Bergara	20,45
Eibar	21,00

**PREZIOA PERTSONAKO:**

Logela bikoitza: 17.000 pta.

Banakako logela: 23.000 pta.

**PREZIO HONETAN:**

Bidaia, Hotela (\*\*), Gosaria, Bidai aseguru eta Asistentzia teknikoak.

**ASTE BUKAERA  
LOURDESEN**

Bilbo	7,45	2.500 pta
Donostia	9,00	2.000 pta
Gasteiz	6,30	2.600 pta
Arrasate	7,15	2.500 pta
Bergara	7,30	2.400 pta
Eibar	8,00	2.250 pta
Elgoibar	8,10	2.250 pta

Gaua bertan pasatu nahi baduzue deitu **PESA GRUPO**ra.

**Informazio gehiago zure bidai agentzian edo telefono hauetan izango duzu**

**(94) 416 87 77      (94) 416 89 55**



**A**ste honetako erretratua **Anita Garatek** lagat-  
takoa da.

Erretratua 1928. urtean Colegio de la Milagrosako ikasleek San Isidrorra (Madarixatik gora) egindako eskursioan ateratakoa da.

Anitak esan digunez ikastetxe honetako ikasleek urtero egiten zuten irteera bat.

1928. urtean bi ikastetxe zeuden Elgoibarren aukeran: Bata, Plaza Txikian, eskola publikoa. Bestea, "Gaztetxea" izan zen edifizioan, aipatutako monjen eskola pribatua.

Gaurko eta orduko eskola pribatuen aldeaz

jabetzeko datu bakar bat: hilean bi pezeta ordaintzen zuten. Benetan azpimarratzekoak dira orduko eta gaurko neska gazteek dituzten ezberdintasunak: arropak, poltsak, ile orrazkera eta batez ere erretratatzailearen aurrean hartzen duten jarrera.

Imajinatzen al dituzue gaur egungo bost neska gazte "pose" horrekin?

Ikus dezagun zeintzuk diren neskatxa hauek: Ezkerretik eskumara: **Digna Lasa, Anita Garate, Isabel Garcia** eta **Maria Iriondo**. Belarretan etzanda: **Maritxu Osoro**.

**MALAPE**



**BERISTAIN EDARI BANATZAILEA**

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Altolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Ardoak eta edariak


lñaki 74 38 27

# Estetikaren boom-a

Lehen eguzki izpiak ateratzen direnean eta neguko arropak arintzen doazen neurrian, urte osoko lasaikeriaren ondorioak nabaritzen hasten direnean, alerta pizten da gure buruan. Dietak, kilo batzuk galtzeko sauna saioak, zelulitisa kentzeko kremak... Mila eta bi soluzioren bila, larrialdia gainditzeko modu ugari eskaintzen zaizkigu, gero eta estilizatuagoa den munduan gustagarri izateko.

**Argi** dago gure itxura fisikoak gainontzekoek gutaz duten irudia baldintzatzen duela. Beharbada itxura fisikoa ez da izango pertsonaren nortasunaren ezaugarri garrantzitsuena baina betidanik esan ohi da "irudiak saldu egiten duela" eta gizakia ez dago topiko horren eraginetik salbu.

Betidanik, baina 80. hamarkadatik batez ere, batek daki zein arrazoiengatik, estetika eta estetikoaren denaren aldeko gura edo nahia nagusitu da gizartearen. Zineak eta publizitateak guretzako eredu diren pertsonaiak erakusten dizkigute. Imitagarri diren pertsonaiak grabatzen dira gure buruan,



↳ Eguraldi aldaketa medio "UVA" izpi makina eguzkiaren ordeko bihurtu da.

itxura fisikoagatik enbidia-garri edota desiragarri direnak. Interesgarri eta arrakasta duen irudi estereotipatua gailendu da, neurri handi batean itxura fisiko jakin bati lotuta dagoena.

Honekin bat, kirolaren "boom" a gertatu da, edergintza zentruena eta fabrikanteen arabera, inolako esfortzurik gabe gure irudi fisikoa zatartzen duen guztia ken dezaketen produktuena. Horrela, gorputzaren zainketa buruzko prentsa izugarri ugaldtu da azken urteotan, eta, normaltzat jotzen ditugu astebetean lau kilo kentzeko,

errejimen milagrosoen edota zimurrak desagertarazten dituzten kremen iragarkiak. Hidroterapia, magnetoterapia, liposukzioa eta horrelako metodoak gero eta eza-gunagoak dira gure artean. Edergintzarako zentruak eta zerbitzuak ere asko ugaldtu dira azken aldian. Esaterako, Elgoibarren 12 edo 13 solarium edo "UVA" izpi makina daude, beste horrenbeste ileapaindegi eta edergintza zentru. Guztioi atsegin zaigu gure buruarekin gustura egotea, eta zergatik ez, gainontzenkoentzat ere gustuko izatea.

---

**Hidroterapia,  
magnetoterapia,  
liposukzioa eta  
horrelako  
metoduak gero  
eta  
ezagunagoak  
dira gure  
artean.**

---

**AITZ BIZKAR ARDOAK**  
ARDO ETA PATTARRA  
PATATA SALMENTA  
Errosario 18  
Tel. 74 02 37

**BETI ARGi, S. L.**  
*Erregalu artikulua  
Instalazio orokorrak  
Sukaldeko tresneria.*  
**ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.**


**UDA BERRI**  
**ELGOIBAR**

## "Itxura fisikoa zaintzea garrantzitsua da"

Orain hamar-hamabost urte oso jende gutxi aritzen zen kirolean. Gero, ordea, kirolak elite kutsua galdu eta, kirola, osasunaren zein estetika-aren aldetik, komenigarria delako sinismena zabaldu da. Jendeak hobeto ikusten du bere burua praka motzak jarri eta izerdi piska bat bota ondoren. Adin aldetik ere, haur, gazte zein nagusiek egiten dute kirola.

Estetika zaintzea garrantzitsua da nere ustez, baina are garrantzitsuagoa kirola egitea osasuna mejoatzearen. Estetikari dagokionean, nik uste dut, denak gerala piska bat 'narzisista'. Osasunagatik kirola egin, eta estetikari garrantzirik ematen ez diola esaten duena, gezurretan dabil. Denoi gustatzen zaigu gorputz dotorea izatea eta gainera hori ez da txarra. Kirola egitea horregatik bakarrik, primeran dago, baina pasatu gabe. Badaude zoruen pare muskuluak landu nahian ibiltzen direnak. Estetiko-

ki zatarra da eta gainera kirolak eman dezakeen arintasuna eta bizitasuna galdu egiten da. Badago, muskuluak lantzerako datoreen jendea, "UVA" izpiak hartzerako datorena ere bai, edota saunara aurpegiko puntu beltzak kentzerako datorena... Urte osoan zehar tapaturik egon diren gorputz partearak erakusten hasten garen sasoi honetan batera edo bestera jotzen du jendeak bere arazoentzako soluzio bila. Mitxelinak, emakumezkoen kasuan izter iletsuak, azal zuria... Emakumezkoetan gainera nabarmenagoa da gizonetzkoetan baino estetikaren kontu hau. Argi eta garbi oraindik ere estereotipo batzuri erantzuten dion estetikari jarraitzen zaio. Emakumea argala eta dotorea izan behar da eta gizona, berriz, indartsua eta sendoa. Esaterako, "UVA" izpiak hartzerako eta sauna-



ra emakumezkoak etortzen dira gehienbat. Masaiak hartzerako emakumezkoak zein gizonetzkoak, antzera. Izan ere oraingoa da guzti hau somatzen deneko garaia, uda garaia, alegia. Akats guztiak orain agertzen dira, piszina, hondartza, mendian etb. Jendeak hilabete batean urte guztian zehar pilatu diren akatsak konpon-

du nahi izaten ditu, eta, hori, noski, ezinezkoa da. Zentzua duen gauza bakarra urte guztian zehar zaintzea da, ez estetikagatik soilik, osasunagatik ere bai.

Ez dugu ahaztu behar kirola modu egokian egitea osasuna dela eta tentsioak askatzeko balio dezakela. Gure autoestima eta nortasuna garatzeko funtsezkoa da gure irudia eta egoera fisikoa hobetzea. Lehendabizi, gu geu egon behar gara gustura gure buruekin.

Nire ustez, daukan garrantzia (eta ez da gutxi) baina soilik daukana eman beharko genioke irudi fisikoari; eta inoiz ez besteez harremanak gure nortasunaren alderdi horretara mugatu.

**Julio Anton**  
Kiroldagiko zuzendaria



**KEMEN** Belardenda

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 26. Tel: 74 40 31

**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA  
BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**PUB**

**LAJANTEJ**

elgoibar

# Dieten aldekoa ala kontrakoa zara?

**Gaur egun modan dagoena, gorputz liluragarri bat edukitzea da eta zergatik ez gara ahaleginduko gure ametsetako gorputza lortzen?**



**U**da helduko da eta berarekin orain arte izkutatutako gorputza kanpora ateratzeko momentua.

Fraka motzak, soineko eta bainujantziak ateratzeko garaia iritsi zaigu eta a ze sorpresa, joan den udako jantziak estuak geratzen zaizkugula ikustean!

Eta orain zer? Ez zaitezte kezkatu. Arazoa ez da hain larria. Dieta eta kirol piska batekin soberazko kiloak galduko ditugu.

Entsaladak, barazkiak, desnatatuak... beharbada piskat gogorra egingo zaigu azukre eta goxoei agur esatea, baina

egindako sakrifizioak bere saria izango du. Eta zergatik ezingo dugu dieta egin? Gorputza zaintzea gauza ona da. Baina noski! ezin dugu dieta obsesiotzat hartu. Ez dugu ezer lortuko dieta gaixotasun batean bihurtzen badugu. Gauzak ezin dira bere mugatik atera. Dieta egitea oso ondo iruditzen zait baina hori eta ez jateagatik gaixotzea, gauza desberdinak dira oso. Beraz, esandakoa; ez pentsa gorputz perfektu horrek ametsetakoak direla. Sakrifizio pixka batekin dena lor dezakegu. Ez obsesionatu eta aurrez aurre.

**Celia Pelaz**

**Dietak gure gizartearen obsesio bat dira. Jendea ez dago inoiz konforme bere fisikoarekin eta dietara jotzen du, honen arriskuak jakin barik.**



**N**ire ustez dietak alferrikako gauzak dira, kiloak galtzeko hobeagoa bait da kirol bat egitea, ez da metodo oso azkarrak baina denborarekin emaitzak lortzen dira.

Fisiko ona edukitzea hain garrantzitsua denez, pertsonak denetik egiten du hau lortzeko. Horretarako hiru alternatiba daude:

- Zure dieta egin, hau da, zuk erabakitzen duzu zein janari hartu eta zein ez. Horrela lortzen den gauza bakarra osasuna hondatzea da.

Efektiboa ez dela ikustean, askotan obsesio bat bihurtzen da eta azkenean jateari

lagatzen diozu.

- Medikuek batengana joatea, niretzat metodo hoberena da. Oso dieta onak daude, baina guztiak ez, askotan mehetzen zara baina denborarekin kilo horiek berriro hartzen dituzu.

- Niretzat, pilulekin egiten diren dietak, txarrenak dira. Askotan ez dakizu zer hartzen hasi zaren edota hauen efektuak zeintzuk izango diren. Bizpahiru kilo sobran badaude, kirola egitea da hoberena. Medikuek jantziak jartzeko azken alternatiba izan behar da.

**Amelia Almeida**

**Garbiñe Edergintza**

- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa eta hotzean.
- Solariuma

P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

ilecapaindegia  
estetika

**IDAMA**

Santa Ana, 7  
Tel. 74 40 26




# Dieten aldekoa ala kontrakoa zara?



**Esther Martin**  
13 urte, ikaslea


Pertsona lodi batek argal izan nahi badu dieta egitea ondo dago. Lanbide askotarako argal egon behar da eta dietak oso ondo daude horretarako.



**Eulogio Leon**

38 urte, ajustatzailea

Nik ez dut inoiz dietarik egin. Dena den, pertsona batek bere burua hobeto ikusteko errejimena egitea ondo iruditzen zait. Medikuak kontrolatutako errejimena egin behar da.



**Agustin Gonzalez**  
35 urte, mekanikoa

Errejimena egitea ondo dago baina urte guztian zehar egin behar da eta ez hondartzara joan behar denean bakar bakarrik.



**Enrike Garate**

54 urte, muntatzailea

Medikuak kontrolatutakoa bada, ondo iruditzen zait. Gauza asko gaizki egiten dira, jendeak bere kabuz egiten duelako errejimena, medikuak zaindu gabe.



**Aintzane Perez**  
23 urte, ikaslea

Bakoitzaren arazoa da. Ez da fanatikoa izan behar eta denetik jan behar dela uste dut. Norberaren buruarekin hobeto sentitzeko balio badu, ondo dago.



**Iraide Agirre**  
16 urte, ikaslea

Errejimena egitea oso gogorra da eta uste dut merezi duela. Baina horretarako borondate handia eduki behar da eta nik askotan ez dut edukitzen.

**Erretailiak**

**GAILUR**

**Teilatu konponketak**

☎ 74 34 86  
☎ 75 15 33

**JAUREGI**

INPRIMATEGIA

KATALOGOAK-LIBURUXKAK  
INPRIMAKIAK  
TIPOGRAFIA ETA OFFSET  
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko,20.  
Tel: 74 13 29

**IRAKASLE ESKOLA**  
Eskoriatza  
Gipuzkoa

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:  
**1993-94 ikasturterako aurreinkripzio-  
epea zabalik dagoela.**

**Espezialitateak:**

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

**Informazioa**  
Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

## Odola emateko deia

Uztailak 23an Gipuzkoako Odol Bankuko kideak Elgoibarko Odol Emaileen Egoitzan izango dira, eman nahi duen guztiari odola ateratzeko. Ateraldiak arratsaldeko 6,30ak eta 8,30ak bitartean egingo dira. Abuztuan, jendea oporretan egon arren, odol ateraldiak egingo direla jakinarazi nahi du Odol Emaileen Elkartek. Abuztuaren 13an, arratsaldeko 6,30etatik aurrera egingo dira ateraldiok.

## Elgoibarko Musika Banda ETB-1ean

Datorren hilaren 21ean, ETB-1eko Kiosko programan ikusi ahal izango dugu Elgoibarko Musika Banda. Programa, gaueko 11etan hasiko da eta errepikapena hilak 25ean, igandea, izango da goizeko 11,30etan. Kiosko programa, Euskal Herriko bandei buruzko programa bat da eta beste askoren artean, Elgoibarko bandak ere bere tarteak izango du.

## Deba ibaiaren kutsadura aztergai

**Eguzki**, talde antinuklear eta ekologistak antolatuta, Aranzadi elkarte tekniko den Mikel Urrizelki biologoak Deba bailarako ibaien kutsadura eta saneamenduari buruzko hitzaldia eman zuen astelehenean. "Arroen antolaketa integrala" izenburupean, Aranzadiko teknikoak diapositiben bidez kanalizatutako eta kanalizatu gabeko ibaiei buruz eta ur fekal eta ur industrialen eraginei buruz jardun zuen.

Aranzadiko kideak Deba ibaiaren kutsadura altua azpimarratu zuen eta

Deba ibaiaren ibaiadarrak Gipuzkoako kutsatuenetarikoak direla adierazi zuen. Izan ere, Ego ibaiadarra da bere esanetan Gipuzkoa osoko kutsatuen.

Elgoibarko hitzaldia Deba bailara osorako antolatu diren ekintzetariko bat izan da. Ekintzok ostiralean bukatuko dira Bergaran izango den kontzertu batekin.

Hasieran partaidetza eskasa izan zen arren, hitzaldiak aurrera egin ahala gero eta jende gehiago azaldu zela azpimarratu nahi dute antolatzailleek.



Deba ibaia Gipuzkoako kutsatuenetarikoa da

# HEMENDIK BODEGA

**Gure berezitasunak:**

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

Pedro Muguruza 20.

Tel. 74 25 00

*Ferpi*  
MODAK

BEHERAPENAK

P. Muguruza, 31. Tel. 74 08 15

**USATORRE**  
**Taberna**

San Antolin. Tel. 74 17 99

# San Pedro auzoko jaietan zehar



**San Pedroko etxeetako jaiak izan ditugu astebukaeran zehar. Hona hemen bertoko giroa erakusten duen argazkia. San Pedroko jaiak dotoreak direla argi laga zuten auzotarrek. Ikusi bestela zein txosna mardul jarri zuten.**

**Ostiralean hasi ziren San Pedro auzoko jaiak. Arratsaldeko mountain-bike txapelketaren ostean *Grand Prix* orkestak gava alaitu zuen. Auzo honetara hurbildu zirenek pasodoble eta musika modernoaren ritmopean dantza egiteko aukera izan zuten.**



**Igande arratsaldeko entretenigarri nagusia sokamuturra izan zen. Jende ugari urreratu zen sokamuturrera baina gutxi batzuk baino ez ziren ausartu zezenaren aurrean jartzera. San Pedroko jaiak *Travel* orkestaren saioaren ondoren bota zituzten txaflligekin amaitu ziren.**

# "Pena handiz utziko dut Elgoibar"

**Pedro Albizuri zazpi urte t'erdi izan da Elgoibarko parrokoa. Datorren irailaren bukaeran edo urrian gure herria utzi eta Donostiako Aiete auzora joango da bere lana**

**betetzera. Urte guzti hauetan Pedrok Elgoibar ondo ezagutzeko aukera eduki du. Gure artean bizi izan dituen gora beheren berri jakiteko berarekin hitz egin dugu.**

**-Pedro, zergatik zoaz Elgoibartik?**

-Gaur egun sei urterako izendatzen gaituzteparroko izateko. Nik zazpi urte baino gehiago daramatzat Elgoibarren eta Donostiako Gotzainak Aietera joateko eskatu zidan.

**-Beraz, ez da zuk hartutako erabakia?**


-Eskaera Gotzainak egin zidan eta nik baiezkoa eman nion. Aldatzea ona izaten da askotan. Urte gehiegi leku berean egoteak bere eragozpenak ditu.

**-Zein etorriko da zure partez?**

-Orain Plaentxian parrokoa den Benantxio Otaegik beteko du nere postua. Nere aurretik Elgoibarren parroko egon zen Don Karlos azpeitiarra zen, eta ni eta Benantxio ere bertakoak gara.

**-Zela konpondu zara Elgoibartarren artean?**

-Oso ondo, lagun asko egin ditut. Neretzat oso garrantzitsua da jendearekin hitz egin eta tratua eukitzea. Pertsona irekia izaten saiatzen naiz, Elizaren lana kanpora ateratzea gustatzen zait. Beharbada nere irudia ez da oso tradizionala eta



**“Apaizok maleta beti prest euki behar dugu alde batera edo bestera joateko”.**

horregaitik hasieran pertsona nagusientzat nahiko “txokantea” izan nintzen. Baina hori hasieran bakarrik gertatu zen.

**-Zeintzuk izan dira zure kezka nagusiak azkenengo urte hauetan?**

-Nahiko urte mugituak bizi izan ditut Elgoibarren. Langabeziaren eragina, adibidez, oso larria da. Gogoan ditut bi hilketa, 88ko uholdeak, Gaztetxearen arazoa...

Azkenaldian beste kezka haundi bat daukagu: parrokiaren eraberritzea.

**-Noiz hasiko dira parrokia konpontzeko lanak?**

-Esan daiteke lanik zailena, dirua lortzea, eginda dagoela. Herriari laguntza eskatu genion eta bere erantzuna benetan oso ona izan da. Diputazio, Jaurilaritza eta Udalean ere gure eskaerek harrera ona izan dufe. Obrak Gabonak aurretik hasi eta

udarako bukatuta egongo direla uste dugu. San Bartolome parrokia oso zaharra da, 300 urte ditu eta konponketa txikiek ez dute balio dagoeneko. Hiru gauza berritu behar dira: teilatua, kanpandorea eta elizaren ingurua. Gustatuko litzaidake obrak bukatu arte hemen egotea, baina ez da posible izango.

**-Misioetan ibilitakoa zara. Berriz bueltatzeko asmorik ba al daukazu?**

-10 urtez izan nintzen misionero Ruandan, Afrikaren bihotzean. Esperimentzia oso aberasgarria izan zen. Askotan pentsatu dut bueltatzea. Apaizok beti maleta prest euki behar dugu alde batera edo bestera joateko. Elgoibarren baino lehenago Lasarten eta Martutenean izan nintzen parroko eta orain, berriz, Donostiara noa.


**-Zer sentimendukin uzten duzu Elgoibar?**

-Pena haundiarekin. Lagun asko egin ditut eta orain hemendik joan beharra gogor samarra da neretzat.

**Aitor Zabaleta**

## Iñaki Ribero

### Podologoa



- Zein da elgoibartarron "Aquiles taloia"? -Langabezia, batez ere.
- Gehien sufritzen duen behatza? -Lodia.
- Oinen usai txarra kentzeko, zer? -Plantillek lasaitu egin dezakete baina sendatzeko badaude farmazian gatzez eginiko krema oso onak.
- Ona al da ortozik ibiltzea? -Bai.
- Zein da oinetakorik kaltegarriena? -Deportezko zapatillak, oina zabaldu egiten delako eta asko izerditzen.
- Reflexoterapiak senda al dezake gaitzik? -Lagundu dezake baina nik ez dut sinisten senda dezakeenik.
- Gogortasunak kentzeko nahikoa al da "pomez" harriaz igurtitzea? -Bai, harria eta hidratazioa. Dena dela gogortasun horren jatorria ikertu beharko litzateke.
- Oinen nekea desagertarazteko ur beroa, gatza eta ozpina? -Hori da, bai eta masaiak edo eta ur bero/hotzaren kontrasteak oinean.
- Podologo ona izateko? -Esku ona, preparazioa eta gogoia.
- Zaintzen al ditugu oinak? -Bat ere ez; oso ahazturik ditugu.
- Noizko podologia Seguritate Sozialean? -Hori nahi genuke guk!
- Babak hustutzeko, orratza? -Nik erabiltzen dut, haria sartzen da eta likidoa urtetzen uzten da.
- Ona al da kirola oinentzat? -Danetarako da ona kirola.
- Zirujariak, bai ala ez? -Bai. Neurrian eta arazo konketuaren arabera.
- Noren oinak dira politagoak, emakume ala gizonarenak? -Normalean gizonenak, emakumeek arazo gehiago izaten dituzte.
- Zer deritsozu Txinan nesken oinak bendaz biltzeko zuten ohi-turaz? -Basatikeria bat zen!
- Zer egiten daukazu "kalloa"? -Nere lanean, noski.
- Noren oinetara makurtuko zinateke? -Egunero makurtzen naiz jendearen oinetara, nire lana da.
- Emango al zenioke norbaiti musu bat oinetan? -Txantxetan eman izan dut.

Jasone Osoro

## BERTSOTAN

### GORPUTZARI KULTOA

Doinua: Aita izena

"Gorputza eta burua dira biak elkarren osagai" mende honetan hauxe da gure eguneroko aipagai, "gorputza eta arima dira elkarren artean anai" mende honetan arima ez da aipatzen beti ta nonahi gorputza saldu ez dugun arren erlijio kultoa bai (bis)

Gizaki orok behar omen du nolabaiteko fedea garai bateko meza luzea baleko zuen jendeak aukeraketa aldatu dugu gustuarekin batean orain norberak bere burua zaintzean datza alde honi "kultoa" deitzen diote gorputzarena, ordea (bis).

Izaskun Elizburu




**OINETAKOAK**  
**BEHERAPENAK**  
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

**LODOSO LEHIOAK**

**BALKOIRAKO**

**ALUMINIOZKO ARMARIOAK**



Ermuaranbide 16. ☎ 74 34 90

## XVI. mus txapelketa

La Union arrantza eta ehiza elkarteak antolatutako XVI. mus txapelketa bukatu da dagoeneko. Bi astetan zehar jokatu den txapelketa honetan herriko 10 bikotek hartu du parte. Sailkapena honela gelditu da:

- 1-Angel Ramos eta Pedro Tejero
- 2-Juan Jose Sastre eta Jose Picado
- 3-Felix Valero eta Carlos Moreda
- 4-Karmelo Lasuen eta Emiliano de Pablo

Aldi berean La Union elkarteak, emandako laguntza eskertu nahi die denda eta banketxei.

## Ego-Tokikoak ez dira Europako txapelketarako sailkatu

Alberto Revuelta ez da Europako atletismo txapelketan izango, pasa den astebukaeran jokatu zen Espainiako txapelketan ez baitzuen lehen postua lortu. Espainiako txapela irabaztea ezinbesteko baldintza zen Albertorentzat Europako txapelketan parte hartzeko. Revueltak ondo hasi zuen lasterketa baina erdi aldera ez zuen bere burua ondo ikusi eta erretiratu egin zen.

Carmen Pereak, berriz, laugarren egin zuen 800 metrotako finalerdian eta horrek finala jokatzeko aukera eman zion. Larunbatean Carmenek zortzigarren postua lortu zuen Espainiako txapelketako finalean.

Moises Andonegi:

## "Triathloian hasi aurretik ez nakixan igeri egiten"

**-Zer moduz ibili zara Zarautzeko triathloian?** -Bueno, nere helburua amaitzia zan eta lortu naban. Erten ginan 195 pertsona, 35 bat erretiratu egin zian eta bukatu genduzen 165en artetik 140.a izan nintzan.

**-Hain gogorra al da triathloia?** -Bai. Zarautzeko triathloian, Getariatik Zarautzera igerixan joan behar da, gero 85 kilometro bizikletan eta azkenian 25 saltaka. Bost ordu eta erdi dira guztira.

**-Nolatan sortu zitzaizun kirolerako zaletasuna?** -Oiz-Mendixa laga nuanian "hecho polvo" nuan. Orduan San Lorentzon palan jokutzen hasi nintzan. Gero nerekin jokutzen zabanari tendinitis sortu jakon eta ezer egin gabe ez gelditziarren saltaka hasi nintzan. Behin Zarautzeko triathloia ikustera jun eta gustau egin jatan. Baina arazo bat naukan: ez nakixala igerixan. Horrela urtebetian igerixan ikasi naban eta hurrengo urtian Zarautzeko triathloia egin naban.

**-Zein da triathleta batek izan behar duen ezau-garria hiru lasterketa hain ezberdin burutzeko?**-Entrenamenduan oinarritzen da dana. Muskuluak landu egin bihar dira eta kirol



bakoitzari ohitu. Igerixan gerritik gorako muskuluak landu bihar dira, saltakan beste muskulu batzuk eta bizikletan beste batzuk. Triathloian muskuluak ohitu egin bihar dira eta hiru kirolak beti segidan egin bihar dira.

**-Hiru lasterketetatik, zein duzu gustukoen?** -Bizikletan ibiltzia. Saltaka egiterakuan asko sufritzen da askoz ere traumatikuagua dala-ko. Gorputz guztixa mobitzen da eta gainera triathloietako azkenengo pruebia izaten da.

**-Kirola, betirako?** -Bai. Nere helburua ez da urte batzutan "a tope" ibiltzia eta gero laga. Neri gustauko jatan 60 urtekin ere kirola egiten jarraitzia.

● Adina: 29.

- Triathloi gustukoena? Zarautzekoa
- Zer egiten duzu denbora librean? Kirola batez ere.
- Tourra jarraitzen duzu? Bai.
- Eta Indurain irabazle? Bai, noski. Fijo!
- Triathletaren ametsa? "Iron man" bat bukatzea.

**ecenarro**  
Barruko erropak  
Umeentzako erropak  
San Frantzisko 10, Tel.: 74 26 19

**BATZOKIA**  
Jatetxea-Taberna  
P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

**Iraegui**  
ERROTULAZIOA  
☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06

JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

## Joseba Etxeberria elgoibartarra Espainiako futbol selekzioan

Joseba Etxeberria, 15 urteko futbolari gaztea, Espainiako selekzioarekin jokatzeko ari da duela urtebete gutxi gora behera. Pasa den astean heldu zen Elgoibarrera Espainiako futbol selekzioarekin Holandan jokatzeko egon ondoren.



**Ostegunean**, berriz, Venezuelarantz abiatu zen, bertan futbol talde hispaniamerikarren arteko txapelketa batean jokatzeko. Josebak 15 urtetik beherako kategorian jokatzeko du eta Espainiako selekzioan egoteaz gain, Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioan ere badago.

Horrezaz gain, Errealeko jubenilen taldean jokatzeko du eta bere

ilusiorik handiena nagusien Errealean jokatzeko izango litzatekeela aitortu digu. Izugarri gustatzen zaio futbola eta kirol hori praktikatzen jarraitzeko asmo sendoa dauka elgoibartarrak. Futbola eta REMeko 2. mailako ikasketak ondo konpajinatzen dituela esan digu. Futbolak ez du alde txar edo gogorrik Josebaren ustez, eta futboletik den dena gustatzen zaiola adierazi digu.

## 6.000 metrotako mendia igoko du Aritza Monasteriok

Aritza Monasterio mendizale elgoibartarra, pasa den ekainean Andeetara abiatu zen bera bakarrik mendiak igotzeko asmoaz. Ekainean Nevado Risco, 5.752 metrotako mendia igo zuen aklimatazio prozesua burutzeko. Artesonraju sei milako mendian bideak irekitzen zegoela, erori eta bertan behera utzi behar izan zuen igoaldia. Uztailean Alpamayo mendia, 5.947 metrotakoa, igoko du beste lau pertsonarekin batera eta, ondoren Artesonraju mendian bide berriak irekitzen saiatuko da.

## Txirrindulari lasterketa

Pasa den hilaren 10ean bigarren urteko kadeteen *Kadete saria* lasterketa jokatu zen Oñatin. Lasterketa 84 txirrindularik bukatu zuten eta guztira 64 kilometro bete zituzten. Helmugara heldu zen lehen elgoibartarrak, *Muebles Olatzeko* Aitor Etxanizek, laugarren postua lortu zuen sailkapenean.

*Kafetegia*

**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

**Aldizkari hau  
DEBALDE  
da. Etxean jaso  
nahi baduzu,  
deitu!**

**74 16 26**



# Zuhaitz astialdirako taldea

**Zuhaitz, astialdiko heziketan jarduten duen taldea da. Ideario batean, taldearen estatutuak eta ideologia jasota dituzte. 1986. urteko apirilean, Jose Luis Belloso apaizaren borondate edo ekimenez sortutako taldea da; gizartean nabari igartzen ziren karentzia batzuei erantzun nahian sortutakoa, alegia.**



↳ Urtean zehar bizpahiru konbibentzia saio egiten dituzte Zuhaitzeko kideek.

**Zazpi** begiralek eta presidenteak osatzen dute Zuhaitz astialdi taldea. Gizartearen akatsak ikusita, umeekin astialdiko heziketan lan eginez, ahal duten neurrian gizarteari zerbait aporpatzen saiatzen dira.

Hasieran, OHoko 7., 8. eta heziketa ertaineko 1. mailako hurrekin lan egiten zuten baina beraien helburuak betetzen ez zirela ikusita, gaztetxoagoekin lanean hasi ziren. Orain 6., 7. eta 8. mailako hurrekin soilik aritzen dira. Nagusitxoagoekin, ordea, kanpamenduen dinamika lantzen dute. Horrelako iharduera burutzeko aukerarik ez duten Deba Beheko gazteentzako kanpamentuak antolatzen dituzte. Bailerako astialdiko heziketa dinamizatu nahian

elkarren arteko ekintzak burutzen ari dira.

Urtean zehar 20 edo 30 haurren talde batekin egiten dute lan. Hala ere, urte hasierako euforia eta gero, asistentzia asko jeisten dela esan digute. Larunbat arratsaldero *guass* diskoteka gaineko etxean bildu eta begiraleek alde zuzenetik lantutako programa burutzen ahalegintzen dira. Helburu batzuen arabera hiru data nagusi (Gabonak, Aste Santua eta udara) jartzen dituzte eta horien arabera ekintza batzuk egiten dira: jolasak, antzerkia... Irudimena eta elkarren arteko harremanak lantzea dute helburu ekintza guztiek eta ekologia, natura, justizia eta horrelako baloreak haurrengan sakon-

tzea.

Hurrekin lan egitea ez dela gauza erraza aitortu digute Zuhaitz taldekoek. Gogorik eza, asperraldia etb. gainditu behar izaten dute askotan. Urtean zehar bizpahiru irteera edo konbibentzia-saio egiten saiatzen dira. Urtean behin, udaberri aldera normalean, Gipuzkoako parrokiako Astiladi taldeek "Txirrin-txarran" eguna ospatzen dute. Urtero leku ezberdin batean elkartu eta jai eguna ospatzen dute.

Zuhaitz taldea, Parrokiko Astialdiko Federazioko, *Bizi Alai* Taldeko kide da. Parrokiaren baitan dagoenez, taldea katoliko aitortzen da.

Orain arte, bi urtez segidan, Rally farrega-

ria antolatu izan dute. San Bartolome jaietan froga zein baino zein farregarriagoa burutzean datzan jokua da. Baina tamalez, bi urtetan partaidetza gutxituz joan ondoren, aurten bertan behera utzi behar izan dute kuadrilen aldetik erantzunik jaso ez dutelako.

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1986

**Presidentea:**

Jon Gorriti

**Iharduera:**

Astialdiko heziketa

**Begirale kopurua:** 7


**Helbidea:**

Aizdon etxea



# Herriko eta auzoetako jaiak gogoratuz

Elgoibarko herriak, ingurukoek bezalatsu, jaiegun ugari ospatu izan ditu santuen ohorez. Horietako asko auzoetan ospatzen diren jaiak dira eta beste asko denboraren poderioz galduz joan dira. **Jairik garrantzitsuenek, ordea, gaur arte iraun dute.**



AZKUE

↳ **Jaietan, sokamuturra egitarauko ekintzarik herrikoienetarikoa izan ohi da.**

**Herriko** jairik garrantzitsuenak, honoko hauek dira: San Bartolome, San Anton eta Trinitateak. San Bartolome herritarren patroia da. Duela hogeit urte arte, San Bartolometan lau egun bakarrik ospatzen ziren: Bezpera, Patroia-  
ren eguna, Txiki eguna eta Baserritarraren eguna. Bezperan, abuztuaren 23an, arratsaldeko hiruretan, elizako kanpaiak jotzen ziren eta, txapligu eta suzkoerroberek jaien hasera iragartzen zuten. Orain dela bi urte, txapligu botatzearen eta kanpai jotzearen ordutegia aldatu egin zuen Udalak eta

gaur egun eguerdiko ordubatean egiten da. Arratsaldeko 8,30etan Udaleko korporazioa, mazeru eta abanderatuaren laguntzaz elizara joaten zen salbea entzutera.

San Bartolome egunean, herriko kaleetan zehar santuarekin prozesioa egiten zen. Duela 18 bat urte egin zen azkenenkoz San Bartolome eguneko prozesioa. Egun honetako beste ekitaldi garrantzitsua, pilota partiduak izaten ziren. Hurrengo egunean, San Bartolome Txiki egunean (ostirala edo larunbata tokatuz

gero astelehenera pasatzen zen) ohitura izaten zen gazteriak sokamuturraren ostean mahatsa jatea. Arratsaldez, Plaza txikian zezen enbolatuak egoten ziren. Jaietako azken eguna, baserritaren eguna, larunbatean ospatzen zen beti eta bailara mailako ganadu sariketa egiten zen. Gero, San Bartolome jaiak luzatu egin ziren eta gaur egun zazpi egun irauten dute jaiak. Lehenago aipatutako lau egunez gain, jubilatuaren eguna, gazterien eguna eta umearen eguna ospatzen dira.

Herriko jai nagusiak alde batera utzita, Elgoibarko auzo bakoitzak ere bere jaiak ospatzen ditu: Altzolak, San Pedrok, Maalak, San Lorentzok, San Rokek, San Antolinnek eta San Migelek norbere santuaren ohorez ospatzen dituzte jaiak. Datorren astean Maalako jaiak San Pedrokoen errelebu hartuko dute. Abuztuaren 10ean, San Lorentzo auzoko jaiak izango dira, 15ean San Roke auzokoak, irailaren 2an San Antolin auzokoak, eta 29an San Migelekoak.

foto | azkue

ANIVERSARIO  
**20**  
URTEURRENA  
1973 - 1993

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

17 Larunbata

12,00 ZUZENEKO KOMIKI  
ERAKUSKETA

Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: KOKOE

22,45 ZINEA

"1492. La conquista del paraiso"  
Tokia: Plaza handia  
Zuzendaria: Ridley Scott  
Aktoreak: G. Depardieu, S. Weaver, A. Assante.

Z I N E A

"1492. La conquista del paraiso"

Amerikaren aurkikuntzaren V. urteurrena zela eta, estamentu ofizialek pelikula hau egiteko eskatu zioten Ridley Scott-i. Pelikulak ez du aurkikuntzaren historia soilik kontatzen, Cristobal Colonen bizitza osoa hartzen du. Beatriz maitalearekin izandako gorabeherak edota Fray Antonio Marchenarekin izandakoak kontatzen dira besteak beste. Gerard Depardieu frantsesak Colonen pertsonaia egien du.

Z I N E A

18 Igandea

05,30 PIRINEOETARA  
MENDI IRTEERA

Irteera tokia: Foruen Enparantza  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

22,45 ZINEA

"Un horizonte muy lejano"  
Tokia: Plaza handia  
Zuzendaria: R. Howard  
Aktoreak: Tom Cruise, Nicole Kidman

Z I N E A

"Un horizonte muy lejano"

XIX. mende bukaerako Irlandan, lurrén inguruan sortutako istiluen-gatik, maitasunak bikote gazte bat batzen ditu. Elkarrekin, bizitza hobea baten bila joango dira Ameriketara. Pelikulak Ipar Amerikaren sorrera kontatzen du momentu serio eta tragikoenak umorearekin nahastuz. Boston-i buruzko irudi tipikoa agertzen da pelikulan: elaberriko pertsonaiak, boxeo borrokak...

Z I N E A

23 Ostirala

18,30 ODOL ATERALDIA  
Tokia: Anbulategia

MAALAKO JAIAK

22 OSTEGUNA

9etan, Jainen hasiera  
5etan, Buruhandiak  
7etan, Jolasak  
10etan Erromeria

23 OSTIRALA

10etan, Meza  
11etan, Xake txapelketa  
5etan, Buruhandiak  
7etan, Herri jolasak  
10etan, Erromeria

24 LARUNBATA

10etan, afari herrikoia

25 IGANDEA

5etan, Buruhandiak  
7etan, Jolasak eta jaien bukaera.

Artegi LEHIAKETA

**UZTAILEKO GALDERA:** Elgoibarren ezagutu ditugun azken bi uholdeak abuztuan eta uztailean izan ziren, hain zuzen ere. Ba al dakizu zein urtetan?.....eta .....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Uztailaren 20an SAMSUNG telebista bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzenon artean.  
(Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

## Etxebizitzak

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 8Belen.**

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m<sup>2</sup>, kanpokaldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketenezat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5. **74 35 09 - 74 31 66**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak. **74 41 94. Sanchez.**

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet. **Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60**

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da. **Deitu 74 28 56 gaez.**

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neska-erriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel. etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan. **94-6201918 ra (Gorka).**

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N **74 14 80 Javi**

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkeak. **Tel: 74 28 77. Jose**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

## Lana

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 16 89**

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHoko haurrei. Magisteritza tituloa eta ingenieritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

## Salerosketak

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **Deitu 74 02 09 Ainhoa**

Umeentzako bizikleta eta urtako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

## Kontaktuak

Donostian pisua alokatzeko, pisu lagunak behar ditut. 23 urtetako Mutrikuarra naiz. **Idoia 60 35 34**

# MIMOX



*Urrezko eztaietan,  
oraindik ere,  
zure ezkontza erramuaz  
gogoratuko zara.*

*San Frantzisko, 19. Tel: 74 42 13*





# TROPILIKO

**HANBURGESAK  
SANDWICHAK  
PLATER KONBINATUAK  
BOKATAK**

**GOSARIAK  
BAZKAL AURREKOAK  
HAURREN URTEBETETZEAK  
LAGUNARTEKO AFARIAK**

**Goizeko 9etatik zabalik asteburuak barne.**

**San Frantzisko 48. ELGOIBAR**